

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**100. zenbakia****Data 2007-05-23****14515 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****ARETXABALETAKO UDALA****Teleasistentzia arautzeko udal erregelamendua.****ARETXABALETAKO UDALA***Iragarkia*

Bi mila eta zazpiko martxoaren hamabian izandako Osoko bilkuran Aretxabaletako Udala teleasistentzia arautzeko Udal erregelamendua onartu zuen eta jendaurreko epean inolako murtzilorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipatutako erregelamendua behin betikoz onartu dela ulertzen da.

TELEASISTENTZIA ARAUTZEKO UDAL ERREGELAMENDUA**ZIOEN AZALPENA**

Teleasistentzia zerbitzuaren helburua arrisku, babesik eza, mendekotasun edota urritasuna duten pertsonak beren etxean jarraitzea da, beren eskaerari erantzunez eta beren autonomia eta segurtasuna indartuz. Gizarte izaera duen zerbitzu tekniko honek erabiltzaileak larrialdien arretarako zerbitzuekin lotzen ditu, esparru horretan dauden komunitate baliabideak mugiaraziz.

2001.eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuei dagozkien eginkizunak zehaztekoak, lehenengo paragrafoaren 4.1.2. eta 3. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, teleasistentzia udal eskumeneko zerbitzu bat da. Beraz, bidezkoa da zerbitzua arautzea Toki Erregimeneko Oinarriak onartzeko 1985.eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan aurreikusitakoa betez, erregelamendu hau onartuz.

Hala ere, mendekotasna duten adinekoen zein urritasuna duten zerbitzuko erabiltzaileen arreta eta zaintza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa izanik, eta, bestalde, zerbitzua lurralde osoan eraginkortasun eta berdintasunez ematea ziurtatzea komenigarri egiten duten arrazoi teknikoak izanik, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin harremanetan dagoenez (SOS-Deiak larrialdi zerbitzuan sartuz), Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Aretxabaletako Udalaren artean, foru erakundeak teleasistentzia zerbitzuaren kudeatzeko gomendioa hitzartu egiten du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa kontuan hartuta, Aretxabaletako udalean teleasistentzia zerbitzuaren araudia udal erregelamendu honetan onartzen bada ere, aipatutako gomendioaren iraunaldiaren araberakoa izango da.

Erregelamendu honen edukari dagokionez, hiru titulutan egituratzen da:

a) Lehenengo tituluak erregelamenduaren xedea ezartzen du eta teleasistentziaren edukia definitu eta ezartzen du.

Bere edukian, erabiltzaileek sortutako larrialdiaren ondoriozko zerbitzuaren kudeaketa integrazle gain, sistema erabili duten pertsonekin egingo den jarraipena jasotzea ere azpimarratzekoa da.

b) Bigarren tituluak, bere lehenengo kapituluak, teleasistentzia zerbitzuaren prestaketarekin lortu nahi diren helburuak zein horretarako aurrera eraman behar diren eginkizunak adierazten ditu.

Bigarren kapituluak teleasistentzia zerbitzuaren alderdi subjektiboa estaltzen du, erabiltzaileen esparrua arautzen baitu.

Zerbitzuaren onura esleitzeko, bosgarren artikuluan deskribatzen diren egoeretakoren batean egotea aitortzea, ez, ordea, ezaugarri pertsonalen bat izatea, izango da ezaugarri erabakigarria. Beraz, pertsona esparru zabalago baten alde, modu objektibo batean hartzen da gaia.

Ondoren, sarbide baldintzak eta zerbitzutik salbuesteko kasuak deskribatzen dira, baita zerbitzuaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak ere.

Hirugarren kapituluak prozedura arautzen da, hasieran udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuan eskaera egiten denetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hornitu arte, baita zerbitzuaren prestaketan izandako gertaerak aurreikusiz ere.

c) Hirugarren tituluak zerbitzuaren prestaketako erregimen ekonomikoa aurreikusten da ondoriozko erabiltzaileen ekarpen sistemarekin, gehienetan, gaur egun dagoen ekarpen legea errespetatzen duena, hain zuen ere.

Arauzko testua aplikazio zuzenerako beharrezkoak diren xedapen gehigarri, indargabetzaile eta azken xedapenarekin ixten da.

LEHENENGO TITULUA

ZERBITZUAREN XEDEA, EDUKIA ETA DEFINIZIOA

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea Aretxabaletako udalean Teleasistentzia zerbitzua arautzea da.

2. artikulua. Definizioa eta edukia.

Definizioa: Teleasistentzia zerbitzua gizarte izaera duen zerbitzu tekniko bat da, eta, erabiltzaileei telefono linearen bidez eta komunikazioen eta informatika ekipamendu berezi bat erabiliz arreta zentro batekin harremanetan jartzea ahalbidetzen die. Zentro hori berez edo bestelako baliabide komunitario batzuk mugiaraziz aurkeztutako gizarte larrialdi edo behar egoeraren araberako erantzuna emateko bereziki prestatutako pertsonalak zainduta dago.

Edukia: Teleasistentzia zerbitzua urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduan emango da, eta, gutxienez, ondorengo prestazioak jasoko ditu:

- a) Erabiltzaileen helbidetan kokatutako teleasistentzia ekipoen instalazioa eta mantentze lana.
- b) Erabiltzaileei ekipoen erabilera eta ezaugarriei buruzko arreta eta informazioa ematea.
- c) Erabiltzaileen balizko larrialdi egoeren arreta (osasun egoerak edota bestelakoak: Sutea etxetan, lapurretak, etab.), bidezko baliabide komunitarioak mugiaraziz.
- d) Gizarte arretako oinarrizko baliabideetarako orientazioa.
- e) Larrialdi kasu batengatik artatutako erabiltzaileen egoeraz interesa agertzeko telefono dei baten bidezko jarraipen berezia.
- f) Urtean bi telefono dei gutxienez erabiltzaile guztiei beren helbidean instalatutako ekipoaren funtzionamendua zein pertsonak erabiltzeko gaitasuna egiaztatzeko. Dei horretan bertan, erabiltzaile fitxan jasotako datuak egiaztatutako dira.

II. TITULUA

TELEASISTENTZIA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

3. artikulua. Helburu orokorra eta helburu bereziak.

Teleasistentzia zerbitzuak orokorrean erabiltzaileen bizitza kalitatea hobetzea du helburu, beren autonomia eta segurtasunaren sentimendua indartuz.

Era berean, teleasistentzia zerbitzuak honako helburu bereziak ditu:

- a) Adin edo urritasun arrazoiak direla eta, beren familia edo gizarte ingurunean gizarte eta osasun egoera arriskugarrian dauden pertsonen iraupena eta integrazioan laguntzea, deserrotze eta egoitza zerbitzuetan beharrik gabe sartzeari laguntzea.
- b) Beren etxean erabiltzaileen autonomia eta independentziaren ahalik eta mailarik handiena eman eta mantentzea.
- c) Adineko edota urritasuna duten pertsonen zaintza bere gain hartzen duten familiei laguntzeko bide bat izatea.
- d) Erabiltzaileei larrialdi kasuetan berehalako segurtasun eta arreta eskaintzea, eta, erabiltzailearen arretarako bestelako beharren kasuetan ahalik eta azkarren erantzutea.
- e) Erabiltzaileei arreta integrala eskaintzea, erabiltzaileen eta gizarte eta asistentzia sarearen arteko etengabeko lotura bermatuz, gai diren erabiltzaileei zein erabiltzaileak laguntzeko sare informalarik antzemandako egoeraren berri emanez.

4. artikulua. Eginkizunak.

Teleasistentzia zerbitzuak bi eginkizun ditu, funtsean:

1. Sorospena ematea: Erabiltzaileak larrialdi egoeran daudenean, berehala ematen die behar den laguntza.
2. Lasaitasuna ematea: Erabiltzaileei, behar larriaren kasuan soilik ez, baizik eta, larrialdiak ez izanda ere, beste pertsona batzuen babesa behar duten beste hainbat egoeratan ere, laguntza jasoko dutela ziurtatzen die, horrekin eguneroko garapenean lasaitasun eta segurtasuna emanez.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILAILEI BURUZ

5. artikulua. Erabiltzaileak.

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileak:

a) Bakarrik bizi diren edo egunaren denbora gehiena bakarrik igarotzen duten pertsonak izan daitezke, arrisku, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran egonik, eta, hala balegokio, beren zaintzaileak ere izan daitezke.

b) Era berean, teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileak udaleko gizarte zerbitzuen iritziz, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran dauden beste pertsona batzuk ere izan daitezke, eta, egunaren denbora gehiena bakarrik bizi edo egoten ez badira ere, bizikidetzat multzo edo unitate baten zati direnak, bere kideak, era berean, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran egonik.

6. artikulua. *Teleasistentzia zerbitzuko sarbide baldintzak.*

Eskatzaileen sarbide baldintzak honako hauek izango dira:

1. Aretxabaleta udalerrian erroldatuta egotea.

Aurreko baldintza betetzen ez badute ere, honako egoeretakoren batean dauden pertsonak eskuratu ahal izango dute zerbitzua:

a) Aretxabaletara lekualdatzen den pertsona, jatorrizko udalerrian, lekualdatzeko datara arte, teleasistentzia zerbitzuaren onuraduna izanik. Eskatzeko unean, Aretxabaletan erroldatu beharko da eta jatorrizko udalerriko Gizarte Zerbitzuetako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Bertan, teleasistentzia zerbitzuko erabiltzailea dela jaso beharko da. Gainera, lekualdatzeko unera arte zeukan teleasistentzia ekipoari baja eman beharko dio.

b) Udaleko gizarte zerbitzuen ustez, arrisku handi edo aparteko egoeran egotea.

2. Bere etxean telefono linea edukitzea.

3. Teleasistentzia ekipoa zuzen eta egoki erabiltzeko gai izatea.

4. Larrialdi kasuetan, mugiarazitako baliabide komunitarioetako pertsonalari eta, era berean, ekipoen instalazio, mantentze lan eta kentzeko kasuetan, zein zerbitzua prestatzea ezartzen duen gizarte eta osasun egoera arriskugarriaren jarraipen eta egiaztapen jardunen kasuetan, gizarte zerbitzuek hala eskatuta, bidalitako pertsonalari bere etxeko sarbidea ahalbidetzeko konpromisoa bere gain hartzea.

5. Udaleko gizarte zerbitzuei erabiltzaileei dagokien espedientean jasotako datu eta dokumentuak, osasunekoak barne, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Osakidetzari, eta, hala balegokio, teleasistentzia zerbitzuaren erakunde esleipendunari, eman ahal izateko baimena ematea, 1. Eranskinean ezarritako baldintzatan zerbitzua zuzen eta egoki ematearren.

6. Gizarte zerbitzuei aitortutako datu ekonomikoak egiaztatzeko eta zerga izaerako eta gizarte segurantzakoekin parekatzeko baimena ematea, hala balegokio, ezartzen den ekarpenaren kitapenari ekitearren.

7. artikulua. *Bazterketak.*

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaile izaeratik teleasistentzia ekipoa zuzen eta egoki erabiltzeko ezintasuna edo zailtasun larria duten pertsonak baztertuko dira.

8. artikulua. *Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak.*

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileek Erregelamendu honetan araututako prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute, eta, oro har, 2004.eko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuz onartutako «EAEko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartan eta iradokizun eta kexuen erregimenean adierazitako guztiak».

9. artikulua. *Zerbitzuko erabiltzaileen betebeharrak.*

1. Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileen betebeharrak, oro har, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuz onartutako «EAEko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartan eta iradokizun eta kexuen erregimenean adierazitako guztiak» izango dira.

2. Era berean, eta, bereziki, teleasistentzi zerbitzuaren erabiltzaileak honako honetara behartuta egongo dira:

a) Teleasistentzia zerbitzua eman eta zuzen eskaintzeko behar diren datu guztiak zuzen ematera zein horien egiazkotasunaz arduratzera ere.

b) Udaleko gizarte zerbitzuei zerbitzu prestaketaren baldintzetan zein dagokien ekarpenaren kitapenean eragina izan dezaketen inguruabar pertsonaletan eta ekonomiko eta ondarekoetan ezein aldaketaren berri ematera.

c) Larrialdi egoera baten aurrean, bertarutzen diren baliabide komunitarioetarako pertsonalari sarbidea erraztera.

d) Udaleko gizarte zerbitzuetako pertsonalari, hala balegokio, teleasistentzia zerbitzuaren garapenaren erakunde esleipenduneko pertsonalari, etxeko sarbidea erraztera, alde aurretik, bisitaren berri emanda, ekipoak instalatu, mantendu eta kentzeari ekitearren, baita zerbitzuaren prestaketa dakarren gizarte eta osasun egoera arriskugarriaren jarraipen eta egiaztapen jardunak egiteari ere.

e) Gehienez ere, bere izenean alta emandako teleasistentzia ekipo bakar bat edukitzera.

f) Inola ere, teleasistentzia ekipoaren instalazio eta programazioa ez manipulatu ez aldatzera, eta erabilera baldintza onetan mantendu zein jasotako erabilera jarraibideen arabera erabiltzera ere.

g) Jasotako teleasistentzia zerbitzuaren prestazioengatik dagokion ekarpena ordaintzera, arautzen duen araudiari jarraiki.

h) Oinarrizko gizarte zerbitzuari bajaren berri eman zein hilabeteko epean teleasistentzia ekipoari itzultzera ere.

III. KAPITULUA. SARBIDE PROZEDURAZ

10. artikulua. *Eskaera eta dokumentazioa.*

Interesatuak edo beren ordezkariak dagokien gizarte zerbitzuko bulegoetan aurkeztuko dituzte eskaerak, horretarako normalizatutako inprimakia betez (Erregelamendu honen 2. Eranskina) eta ondorengo dokumentazioa erantsiz:

1. Eskaera egiten duenaren, eta, hala balegokio, bere ordezkariaren NAREN fotokopia.
2. Eskaera egiten duenaren osasun txartelaren fotokopia.
3. Osasun fitxa. Bertan, osasun arriskuaren balizko egoera jaso behar da, zerbitzua eskatzen duen pertsonak dituen patologiei dagozkien diagnostikoen zein larrialdi egoera batean garrantzitsuak diren tratamenduen deskribapenarekin.

4. Urritasuna duten pertsonen dagokienez, dagokien minusbaliotasun ziurtagiria erantsi beharko da, zerbitzua eskatzen duen pertsonarena zein urritasun egoera alegatzen duten bizikidetzak multzo edo unitatea osatzen duten beste pertsonena ere.

5. Eskatzaile bakoitzeko familia unitatearen datu ekonomikoei buruzko dokumentazioa, erabiltzailearen ekarpena kalkulatzeko erabakigarria dena, erregelamendu honen 18. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Erregelamendu honi dagokionez, familia unitatea indarrean dagoen araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiak definitutakoa da, edota, edonola ere, haren ordezkaria dena.

Aipatutako dokumentazioak honako hauek jasoko ditu:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia. Edo, hori izan ezean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko salbuesita egoteko ziurtagiria.

- b) Eguneratutako diru-sari edota bestelako prestazio edo diru sarreren ziurtagiria, higigarrien zein higiezinaren kapitalaren errendimenduak barne.

- c) Zerbitzuarengatik ekarpenaren ordainketaren banketxe helbideratzeko dokumentua.

Eskaera egiten duen pertsonak bere egoera baloratzerik nahi ez badu, edo modu frogagarrian justifikatzen ez badu, bere egoera ekonomikoa itxaron zerrenda osatzen duen baremoan, halako zerrenda balego, kontuan hartua izateari edota ezarritako laguntzei uko egiten diela iritziko da. Beraz, zerbitzu prestaketarako ezarritako ekarpena ordaintzera derrigortuta egongo da bere osotasunean, eta hori dagokion dokumentuan formaldu egingo du.

Eskaerak erabat formaldu ezean edo exijitutako dokumentuetako baten bat falta izanez gero, eskaera egiten duenari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, errekerimendua egingo zaio, hamar egun balioduneko epean, falta/k zuzendu eta derrigorrezko dokumentuak erants ditzan, horrela egin ezean, bere eskaera atzera egintzat joko dela adieraziz, aldeztu aurretik ebazpena emanda. Ebazpena aipatutako 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 42. artikuluan aurreikusitako baldintzatan eman beharko da.

Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, prozeduran zehar edozein unetan eskaera egiten duenari egokitzen jotzen den dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango zaio, baita formaldutako eskaeren ebazpenari ekiteko egokitzat jotzen den beste edozein baldintza edo tramite betetzeko ere, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 76. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, horretarako, jakinarazpen egunaren ondoren kontaktatzen hasita, hamar egun balioduneko epea emanez, berariaz horrela egin ezean, aurreko atalean finkatutako baldintza berdinetan, bere eskaera atzera egintzat joko dela ohartaraziz.

Eskaera egiten duenak Udalarik kudeaketa egokiak egiteko baimena emango dio, dagozkion datuak egiaztatu edo biltzearen. Datu horiek eskaera egiten duenak erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatzeari buruzkoak izango dira soilik, eta, hala balegokio, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoen egiaztapenari buruzkoak.

Datuak faltsu edota ezkututzeak zerbitzuaren eskatzaile baldintza galtzea ekarriko du, bere gain har ditzakeen erantzukizunen kaltetan gabe.

11. artikulua. *Eskaerak tramitatzea.*

Teleasistentzia zerbitzuko sarbiderako, Aretxabaleta Udaleko sarrera erregistroko eskaerei emandako orden kronologikoa kontuan hartuko da, eta, aurrekontu eza dela eta itxaron zerrenda bat sortuz gero, bosgarren zenbakia duen erregelamendu honen eranskineko baremoaren arabera kudeatuko da.

12. artikulua. *Espedientea tramitatzea.*

Behin udaleko gizarte zerbitzuek aurreko artikulua aipatzen dituen eskaera eta dokumentazioa jasoz gero,

eskaera egiten duenaren egoera zein teleasistentzia zerbitzuan jasotzeko edo ez jasotzeko beharra baloratuko dira, erregelamendu honetan jasotako irizpide eta baldintzei jarraiki eta derrigorrezko gizarte txostena prestatuz.

13. artikulua. Ebazpena.

Behin eskaera aztertu eta baloratuta, eskumena duen udal organora igorriko da, eta hark arrazoitutako ebazpena emango du, eskatutako zerbitzuko sarbidea aintzat hartuz edo ezetsiz.

Ebazpena udal erregistroetakoren batean eskaera jasotzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eskaerak osatzea eskatzen denean eten egingo da jakinarazpenaren eta betetzearen arteko denboran, edo, bestela, emandako epean zehar, edota eskaera egiten duenaren autonomiaren balorazioari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiaren derrigorrezko txostena eskatu behar denean.

Aurreko atalean aurreikusitako epea berariazko ebazpenik eman gabe eta ebazteko betebeharraren kaltetan gabe igarota, eskaera ezetsizat jo ahal izango da, interesatuari aukerako berraztertze errekurtsioa edota administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzea ahalbidetzearen.

Aldeko ebazpenak gutxienez honako edukia izan beharko du:

— Prestazioa ematea zerbitzua emateagatik tarifa eta erabiltzaileari dagokion ekarpen ekonomikoa bereiziz.

— Hala balegokio, eskaera Aretxabaletakko Udaleko itxaron zerrendan jasotzea, erregelamendu honetako 5. eranskineko baremoan jasotako lehentasun irizpideen arabera ordenatuta, zerbitzua berehala emateko modurik ez dagoenean.

Aurkako ebazpenak zioak jaso beharko ditu eta bidezkoa izango da eskaera egiten duena honako kasu hauetakoren batean dagoenean:

— Erregelamendu honetan jasotako sarbide baldintzak ez betetzea.

— Erregelamendu honetan aurreikusitako bazterketak.

— Behar bezala arrazoitutako bestelako arrazoiak.

Legeak exijitutako epeetan eta formaltasunez jakinarazitako ebazpenaren aurka, eskumena duen organoaren aurrean aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da, edota legez ezarritako epeetan eta baldintzatan, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkatu.

Aintzat hartzeko ebazpena Gipuzkoako Foru Aldundiari ere jakinarazi beharko zaio, eta Aldundiak exekutatu beharko du erregistroko sarreraren orden kronologikoari jarraiki, jakinarazpen datatik kontaktzen hasita gehienez 15 eguneko epean, itxaron zerrendan jasotzen ez denean salbu, zerbitzua aurrekontu falta edo ekipo falta dela eta, berehala emateko modurik ez izanda. Eskaera egiten duena ekipoak edota dagokion aurrekontu zuzkidura izan arte egongo da egoera horretan.

14. artikulua. Larrialdiko prozedura.

Apartekotasunez, eta, aparteko behar larriaren kasuan, udaleko gizarte zerbitzuek horrela arrazoituta, teleasistentzia zerbitzua berehala emateari ekingo zaio, izaera hori berariaz azaltzen duen dagokion ebazpena emanez.

Udaleko gizarte zerbitzuek Gipuzkoako Foru Aldundiari emateko ebazpena jakinaraziko diote, larrialdiko prozedura bat dela adieraziz, Aldundiak, edonola ere, zerbitzua gehienez ere 24 orduko epean emateari ekin diezaion.

15. artikulua. Zerbitzu prestaketaren iraungitzea.

Teleasistentzia zerbitzuaren prestaketa honako kasu hauetan iraungi egingo da:

a) Zerbitzuaren erabiltzaileak uko egiteagatik.

b) Zerbitzuaren erabiltzailearen heriotza dela eta.

c) Zerbitzuaren erabiltzailea egoitza batean modu iraunkorrean sartzeagatik.

d) Erabiltzailea Gipuzkoako Lurralde Historikoko edo kanpoko beste udalerrri batera lekualdatzeagatik.

e) Erregelamendu honetako 9. artikuluan jasotako erabiltzaileen betebeharrak ez betetzeagatik.

f) Zerbitzuaren erabiltzaile izaera aintzat hartzea ekarri zuten inguruabarrak aldatzeagatik.

g) Ezartzen den ekarpenaren ordainketa falta dela eta.

h) Erabiltzailea bat-batean ezinduta edo teleasistentzia ekipoaren erabilera zuzen eta egokirako zailtasun larrian egoteagatik.

e), f), g) eta h) paragrafoetan jasotako kasuetan, erabiltzailea zerbitzuan baja emateari ekin aurretik, derrigorrezko entzunaldi tramitea jakinarazi beharko da, zioak eta alegazioetarako epea adieraziz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 84. artikuluan aurreikusi bezala.

IV. TITULUA

ZERBITZUKO ERREGIMEN EKONOMIKOA

16. artikulua. Teleasistentzia tarifa.

2007.eko ekitaldian tarifa hirurogeita hamasei euro eta hogeita sei zentimotan (76,27euro) zehazten da, erabiltzaile bakoitzari teleasistentzia aparatua hornitzeko kontzeptuan eta urtero laurogeita bat euro eta hogeita sei zentimotan (81,26 euro) mantentze lanen kontzeptuan.

Elementu gehigarri baten horniketa, 2007.eko ekitaldian hiru euro eta hirurogeita hamabi zentimotan (3,72 euro) zehazten da eta mantentze lanak hamabi euro eta berrogeita bat zentimotan (12,41 euro).

Tarifa urtero eguneratuko da (urtarrilaren 1etik eragina izanik) Euskal Autonomia Erkidegoko aurreko urtekoarekiko TDA (aurreko abenduaren gainean aplikatutako igoera tasa) aplikatzeari dagokion igoerarekin.

17. artikulua. Finantzaketa.

Teleasistentziaren kostuaren finantzaketa honako hauen kargura izango da:

a) Onuraduna: Zerbitzuaren finantzaketa parte hartu beharko du, eskumena duen organoaren ebazpenean ezarritzen den kopurua emateko sinatutako konpromisoa onartuz, dituen baliabide ekonomikoak kontuan hartuz, zerbitzuaren prestaketa abiarazteko eta hitzarmen honetako 4. eranskinean jasotako baldintzatan.

b) Aretxabaletako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia: Bakoitzak onuradunari ordaintzea dagokion ekarpena kentzean ondorioztatzen den kopuruaren %50eko ekarpena egingo du, hain zuzen ere, zerbitzu prestaketaren kostuari 18. artikulua araberako eta 4. Eranskinean ezarritako ekarpenaren baremoaren arabera kalkulatuta.

18. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena.

Erregelamendu honetan araututako zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuaren tarifa osoa edo zati bat ordaindu beharko du. Bere ekarpena, aipatutako tarifaren portzentaiaren moduan, espedientea tramitatzean behin kalkulatu da, bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta.

Aipatutako ahalmen ekonomikoa zehazteko, familia unitateko kideen per capita errenta kontuan hartuko da. Errentatzat familia unitateko pertsonaren edo pertsonen diru sarrera guztiak jotzen dira, hain zuzen ere, honako hauetatik ondorioztatutakoak:

- Lan errendimenduak, gizarte aurreikuspeneko diru-sari eta prestazioak, beren erregimena edozein delarik ere.
- Higigarrien eta higiezinaren kapitalaren errendimendua.
- Enpresa edo lanbide jardueren errendimenduak.

Behin ekonomia ahalmena zehaztuta, erabiltzaileen ekarpena 4. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera ezarriko da.

Ekonomia ahalmenari buruzko datuak faltsutu edota ezkatutzeak zerbitzuaren eskaeraren artxibatzea ekarriko du, edo iraungitzea emana baldin bazegoen, egintza horietatik etor litezkeen erantzukizunen kaltetan gabe. Udalak erabiltzaileei nolabaiteko laguntza edo prezioko onura emana dien kasuan, laguntzak emateko udal ordenantzan araututako subentzioak itzultzeko dagokion prozedura abiaraziko da.

Zerbitzuen erabiltzaileek, eta, hala balegokio, beren legezko ordezkariak, Udalari, errentan edota familia unitateko pertsona kopuruan izandako edozein funtsezko aldaketa jakinarazi behar diote, gertatzen denetik kontatzen hasita 30 eguneko epean, baita banako ekarpenaren ezarpenean eragina izan dezaketen gorabehera guztiak ere.

Udal teknikariek erabiltzaile bakoitzarentzako banako ekarpena berrikusi ahal izango dute, ofizioz zein erabiltzaileek edota beren ordezkariak hala eskatuta, ekarpenen aldaketa ekar dezaketen baldintza edo gorabeheretako edozeinetan aldaketaren bat gertatzen denean, eta hurrengo hilabetean izango ditu dagozkion ondorioak.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Erabiltzaileei emateko, Erregelamenduaren beraren laburpen bat prestatuko da.

Bigarren xedapen gehigarria.

Erregelamendu honek teleasistentzia zerbitzua eskuratzeko prozedura berezia ezartzen badu ere, hala ere, aurreikusita ez dagoen guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak kontuan hartuko da subsidiarioki aplikatzeko arauditzat.

Xedapen indargabetzailea.

Erregelamendu honetan xedatutakoaren kontraesanen dauden edo aurkatzen duten maila bereko edo behegoko arau guztiak indargabetuta geratzen dira.

Azken xedapenetako lehena.

Tokiko Gobernuko Batzarrari ahalmena ematen zaio erregelamendu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena.

Erregelamendu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo hamabost egun igarota

jarriko da indarrean.



4. ERANSKINA

ERABILTZAILAILEEN EKARPEN BAREMOA (17 ETA 18. ART.) / BAREMO DE APORTACIONES DE LA PERSONA USUARIA (ART. 17 y 18)

<i>Urteko per capita errenta *(2006. Urtea) Renta anual per cápita*(año 2006)</i>	<i>Tarifaren gaineko ekarpenaren % % aportación sobre la tarifa</i>
6.332,62 €tara arte / Hasta 6.332,62 €	10
6.332,63 eta 9.498,93 € bitartean / De 6.332,63 a 9.498,93 €	25
9.498,94 eta 12.665,24 € bitartean / De 9.498,94 a 12.665,24 €	50
12.665,25 eta 15.831,55 € bitartean / De 12.665,25 a 15.831,55 €	75
15.831,55 €tik gora / Más de 15.831,55 €	100

A) Teleasistentzia zerbitzuaren eskatzaile eta onuradunen ekonomia ahalmenaren kalkulua:

Eskatzaile edota onuradunen ahalmena bere familia unitatearen urteko per capita errenta kontuan hartuta kalkulatu da, erregelamendu honetako 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako honako aldagaiak kontuan hartzen dira:

1. Familia unitatea: Erregelamendu honen arabera, indarrean dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen araudian, edota, edozein kasutan ordezkatzen duenak hala definitutakoa.

2. Errenta: Familia unitateko pertsona edo pertsonen diru sarrera garbi guztiek osatutakoa, hain zuzen ere, honako hauetatik ondorioztatutakoak:

- Lan errendimenduak, gizarte aurreikuspeneko diru-sari eta prestazioak, beren erregimena edozein delarik ere.
- Higigarrien eta higiezinaren kapitalaren errendimendua.
- Enpresa edo lanbide jardueren errendimenduak.

B) Erabiltzaileek onartutako tarifaren gainean egindako ekarpenaren portzentaiaren kalkulua:

Kalkulu hori aurreko taularen arabera egingo da, urteko per capita errentaren kuantifikatzearen arabera bertan ezarritako tarteak kontuan hartuz.

2006.eko ekitaldirako taula horretan aurreikusitako urteko per capita errenta urtero IPREMen (ondorio anitzetako errentaren adierazle publikoa) arabera eguneratuko da.

5. ERANSKINA

ITXARON ZERRENDAREN BAREMOA (11. ARTIKULUA)

Itxaron zerrena kudeatzeko baremoak ondorengo alderdiak baloratuko ditu, horietako bakoitzari eta aldagaietako bakoitzari zenbakizko balio bat ezarriz, era honetan:

1. Osasun egoera, larrialdi baten kontuan hartu beharreko gaixotasunak eta mugikortasun zailtasunak, traumatismoen susperraldi egoerak direla eta, eta aurretik jasandako larrialdi egoerak. 25 puntutara arte.

2. Bizikidetzaren egoera ondorengo hiru egoera hauek bereiziz (25 puntutara arte):

— Bakarrik bide den pertsona (10 puntutara arte).

— Beste adineko batekin bizi den pertsona (8 puntutara arte).

— 65 urtez beheko beste pertsona batzuekin bizi den arren, denbora luzez bakarrik egoten den pertsona (7 puntu).

3. Adina (17 puntutara arte):

— 65 eta 74 urte bitartean (0 puntu).

— 75 eta 79 urte bitartean (4 puntutara arte).

— 80 eta 84 urte bitartean (6 puntutara arte).

— 85 urtez goitikoak (7 puntutara arte).

4. Etxebizitzaren kokapena (8 puntutara arte):

— Landa gunea (8 puntutara arte).

— Hiri gunea (0 puntu).

5. Urritasuna edota mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaintzen duten pertsonak (25 puntutara arte).

1, 2 eta 3. ataletan puntuazio gehiena lortzen duten pertsonena zerbitzua eskuratzeko egoera larri eta lehentasunezko zat joko da.

Aretxabaleta, 2007ko maiatzaren 10a.—Arritxu Oliden Bergara, Alkatea.

(759) (5804)